

**GIZARTE-AURREIKUSPEN OSAGARRIA
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN (BIGARREN
ETA HIRUGARREN ZUTABEA) - LABURPENA.**

2017. URTEA

FINANTZA POLITIKAKO ZUZENDARITZA

OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

1- BGAE-AK 2017KO EKITALDIAN**1.1. – BGAE kopurua, modalitatearen arabera. 2017. urtea**

2017an, Euskal Autonomia Erkidegoan 125 BGAE zeuden. Horietatik 80k Gizarte Segurantzaren prestazioen osagarri diren prestazioak ematen dituzte, aurreikuspen-planen bidez, eta gainerako 45ek bestelako arrisku batzuk estaltzen dituzte, hala nola suteak, heriotzak, eta beste batzuk.

1. koadroa. BGAE kopurua, modalitatearen arabera. 2017. urtea

MODALITATEA	Erakunde kopurua	%, gutzizkoaren barnean
BGAEEK aurreikuspen-planekin	80	% 64
Elkartua	2	% 1,6
Enplegu ez lehentasunezkoa	45	% 36,0
Banakakoa	33	% 26,4
BGAEEK aurreikuspen-planik gabe	45	% 36
Heriotzak	30	% 24,0
Suteak	1	% 0,8
Bestelakoak	14	% 11,2
GUZTIRA	125	% 100

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

1. koadro horretan, helburu estatistikoetarako, «BGAEEK aurreikuspen-planik gabe» epigrafearen barruan sartuta dauden 45 BGAEEK oso erakunde txikiak dira, beheko koadro honetan argi ageri denez.

2. koadroa. Gizarte Segurantzaren prestazioen osagarri diren prestazioak ematen ez dituzten BGAEEK garrantzi erlatiboa.

BGAEEK aurreikuspen-planekin	80	25.708.104.292,89	% 99,91
Elkartua	2	22.760.687,31	% 0,09
Enplegu ez lehentasunezkoa	45	13.885.216.313,17	% 53,96
Banakakoa	33	11.800.127.292,41	% 45,86
BGAEEK aurreikuspen-planik gabe	45	23.393.257,06	% 0,09
Heriotzak	30	12.052.523,87	% 0,05
Suteak	1	4.344.844,32	% 0,01
Bestelakoak	14	6.995.888,87	% 0,03
GUZTIRA	125	25.731.497.549,95	% 100,00

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Bere balantze-zifraren portzentajea, BGAE guztien balantze-zifraren guztizkoarekin alderatuz, huskeria da, eta, gainera, arrisku jakin batzuk estaltzen dituzte; ez dute inolaz ere pentsioen sistema publikorako pentsio osagarrien izaera. Hots, BGAE horiek ez dira oro har bigarren edo hirugarren zutabe modura izendatzen denaren tresnak egituratzen dituzten erakundeak.

Txosten honetan, beraz, Gizarte Segurantzaren prestazioen osagarri diren prestazioak ematen dituzten 80 BGAEak izango ditugu aztergai, gainerakoek ez baitute interesik Euskal Autonomia Erkidegoan aurreikuspen osagarriaren aldetik dagoen egoerari buruzko diagnostikoa egiteko, aurreikuspen osagarritzat ulertzen badugu pentsio-sistema publikoaren osagarri diren pentsio-sistemak bideratzeko (nagusiki erretiro-pentsioak) EAEn dauden erakundeen multzoa.

Enpleguko BGAEak 45 dira. Horietatik 41ek enpresa dute beren aurreikuspen-planen jardun-eremua, eta 4 BGAE, berriz, sektorialak dira, beren aurreikuspen-planek enpresa multzo bat hartzen baitute barruan: BGAE batek, Mondragon korporazioko kide diren kooperatibak; beste batek, Gipuzkoako hitzarmen kolektibo probintzial jakin batzuei heltzen dieten enpresak; eta bi BGAEk, sektore publikoko langileak (batek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileak, eta besteak, Foru eta Toki Administrazioak).

1.2.– Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen balantzeko zifra. 2017. urtea

3. koadroa.

MODALITATEA	Erakunde kopurua	Balantze-zifra	%, guztizkoaren barnean
BGAEEK aurreikuspen-planekin			
Elkartua	2	22.760.687,31	% 0,1
Enplegu ez lehentasunezkoa	45	13.885.216.313,17	% 54,0
Banakakoa	33	11.800.127.292,41	% 45,9
GUZTIRA	80	25.708.104.292,89	% 100

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreikuspen-planak dituen BGAE baten batez besteko balantze-zifra 321 milioi euro zen 2017an. Banakako BGAEen kasuan, batez besteko balantze-zifra 358 milioi euro zen, eta, enpleguko kasuan, 309 milioi euro. Ikus daitekeenez, banakako BGAEen batez besteko balantzea enpleguko oso antzekoa da.

1.3.- Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen bazkide kopurua. 2017. urtea**4. koadroa.**

MODALITATEA	Erakunde kopurua	Gizonezko bazkideak	%, guztizkoaren barnean	Emakumezko bazkideak	%, guztizkoaren barnean	Bazkideak, guztira
BGAEak aurreikuspen-planekin						
Elkartua	2	1.298	% 0,2	229	% 0,1	1.527
Enplegu ez lehentasunezkoa	45	268.974	% 42,4	191.443	% 38,8	460.417
Banakakoa	33	363.557	57,4%	301.590	61,1%	665.147
GUZTIRA	80	633.829	100,0%	493.262	100,0%	1.127.091

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2017an, 1.127.091 pertsona zeuden aurreikuspen-planak dituzten BGAEen barruan. Azterketa genero-ikuspegitik eginez gero, gizonak bazkide kopuru osoaren % 54 ziren; emakumeak, berriz, % 46.

2017an, aurreikuspen-planak dituzten BGAEek batez beste 14.089 bazkide zituzten. Banakako BGAEek batez beste 20.156 bazkide zituzten; enplegukoek, berriz, 10.231. Nahiz eta banakako BGAEen batez besteko balantzea enplegukoaren oso antzekoa izan, banakako BGAEen batez besteko bazkide kopurua enplegukoaren ia bikoitza da.

1.4.- Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenak eta prestazioak. Año 2017**5. koadroa.**

MODALITATEA	Kopurua	Ekarpenak	%, guztizkoaren barnean	Prestazioak	%, guztizkoaren barnean
BGAEak aurreikuspen-planekin					
Elkartua	2	342.460,59	% 0,05	302.208,74	% 0,05
Enplegu ez lehentasunezkoa	45	289.303.478,57	% 41,50	407.510.038,08	% 65,50
Banakakoa	33	407.549.034,93	% 58,46	214.293.714,41	% 34,45
GUZTIRA	80	697.194.974,09	% 100	622.105.961,23	% 100

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

5. taulan ageri diren datuak aurreikuspen-planak dituzten BGAEetan kontingentzia jakin batzuetarako egindako ekarpen eta prestazioei buruzkoak dira: erretiroa, heriotza, mendekotasuna, baliaezintasuna, iraupen luzeko langabezia eta gaixotasun larria, hain zuzen; hau da, aurreikuspen-planen bidez eman daitezkeen prestazioak. Datu horietan ez dira ageri, beraz, beste gizarte-prestazio batzuk jasotzeko egiten diren ekarpen eta prestazioak, hala nola aldi baterako ezintasuna, enplegurako laguntzak eta zenbait prestazio mediko. Enplegurako BGAE batzuek ematen dituzte horrelako prestazioak, baina ezin har daitezke bigarren edo hirugarren zutabekoen multzokotzat.

Bestalde, erreskateak ere ez daude taulan jasota, 10 urte baino gehiagoko antzintasuna duten ekarpenei dagozkien eskubide ekonomikoak aurretiaz jasotzea ez baita prestazio bat. Genero-ikuspegitik, sistemari egiten zaizkion ekarpenen kopuru osoaren % 60 gizonak egin dituzte (419.218.099,23); emakumeek, berriz, ekarpenen % 40 egin dituzte (277.976.874,86). Horrek esan nahi du emakumeen ekarpenak, osotasunean hartuta, bazkide kopuruari dagokionez duten banaketa portzentuala baino % 6 txikiagoak direla.

2017. urtean aurreikuspen-planak dituzten BGAEek, osotasunean hartuta, prestazioetan izandako gastu osotik % 75 erretiro-kontingentziarekin lotuta zeuden eta % 17 bazkide arrunt baten heriotzaren ondorioz jaso zuten onuradunek.

Bestetik, prestazioen kopuru osoaren % 67 (414.321.303,91) gizonak jaso dituzte; emakumeek, berriz, prestazioen % 33 jaso dituzte (207.784.657,32). Jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa 10.164,30 € izan da. Baina azterketa generoaren arabera eginez gero, emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (7.846,85 €) gizonak jasotakoa (11.931,50€) baino nabarmen txikiagoa da.

6. koadroa

ERRETIROA					
Bazkide kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
25.224	10.735	35.959	352.472.352,17	111.470.105,39	463.942.457,56

EZINTASUN IRAUNKORRA					
Bazkide kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
4.946	1.619	6.565	36.541.076,18	10.825.546,00	47.366.622,18

MENDETASUNA					
Bazkide kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
5	12	17	22.475,30	64.695,82	87.171,12

IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA					
Bazkide kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
643	515	1.158	2.763.474,78	1.902.331,60	4.665.806,38

GAIXOTASUN LARRIA					
Bazkide kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
43	46	89	538.807,91	254.250,43	793.058,34

BAZKIDE PASIBOAK, GUZTIRA					
Bazkide kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
30.861	12.927	43.788	392.338.186,34	124.516.929,24	516.855.115,58

HERIOTZA					
Onuradunen kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
3.864	13.553	17.417	21.983.117,57	83.267.728,08	105.250.845,65

BAZKIDE PASIBOAK/ONURADUNAK, GUZTIRA					
Bazkide kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
34.725	26.480	61.205	414.321.303,91	207.784.657,32	622.105.961,23

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Prestazioak jasotzeko moduaren arabera eginez gero azterketa, prestazioen zenbateko osoaren % 39 errenta aktuarial gisa jaso da (239.640.115,07), % 11 finantza-errenta gisa (71.169.112,87) eta % 45 kapital gisa (278.014.307,84). Horrek esan nahi du jasotakoaren ia % 50 kapital gisa jaso dela, nahiz eta erakunde horien sozietate-helburua Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen aldizkako pentsioak behar adina osatzea izan.

1.6.– Erreskateak, aurreikuspen-planak dituzten BGAEetan. 2017. urtea

7. koadroa.

	BGAE elkartuak	%	Enpleguko BGAEak	%	Banakako BGAEak	%	BGAEak, guztira
Erreskate kopurua	5	% 0,02	139	% 0,56	24.772	% 99,42	24.916
Erreskateen zenbatekoa	39.542,58	% 0,02	2.641.908,83	% 1,63	159.480.206,32	% 98,35	162.161.657,73

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

BGAEei aplikatu beharreko araudiak aukera ematen die bazkideei, bai banakako modalitatekoiei eta bai BGAE elkartuen modalitatekoiei, eskubide ekonomikoak aurretiaz jasotzeko, baldin eta 10 urte baino gehiagoko antzinasuna badute. Enpleguko BGAEek, berriz, aurreikuspen-plan batzuetan bakarrik daukate jaso eskubide ekonomikoak aurretiaz jasotzeko aukera hori: otsailaren 23ko 5/2012 Legea (BGAEena) indarrean jarri zenean erreskaterako aukera jada bazuten aurreikuspen-planetan, zehazki.

Genero-ikuspegitik, erreskateekin pentsioekin gertatzen denaren antzeko zerbait gertatzen da, hau da, 2017. urtean erreskatatu duten gizonen ehunekoa % 57 da; jasotako kopurua, berriz, handiagoa da, % 62.

1.7 – Laburpena, generoaren ikuspegitik. 2017. urtea

Emakumeak bazkideen kopuru osoaren % 46 dira eta ekitaldiko ekarpenen % 40 egin dituzte. Horrek esan nahi du emakumeen ekarpenak, osotasunean hartuta, bazkide kopuruari dagokionez duten banaketa portzentuala baino % 6 txikiagoak direla.

Bestetik, emakumeek prestazioen % 33 jaso dituzte. Jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa 10.164,30 € izan da. Baina emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (7.846,85 €) gizonen jasotakoa (11.931,50€) baino nabarmen txikiagoa da.

Erreskateei dagokienez, pentsioekin gertatzen denaren antzeko zerbait gertatzen da, hau da, 2017. urtean erreskatatu duten gizonen ehunekoa % 57koa da; jasotako kopurua, berriz, handiagoa da, % 62koa.

2. – AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN ORAINTSUKO BILAKAERA**2.1 Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen kopuruaren bilakaera.****8. koadroa.**

	4H 14	4H 15	±% Δ	4H 16	±% Δ	4H 17	±% Δ
<i>Aurreikuspen-planak dituzten BGAEak</i>	83	82	-% 1,20	83	% 1,22	80	-% 3,61
Elkartua	3	3	% 0,00	3	% 0,00	2	– % 33,33
Enplegukoak	42	43	% 2,38	45	% 4,65	45	% 0,00
Banakakoa	35	34	-% 2,86	35	% 2,94	33	-% 5,71
Mistoak	3	2	– % 33,33	0	-% 100,00	0	

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen kopurua txikitu egin da 2014-2016ko aldian. Finantza alorrean gertatu den fusio-prozesuak antzeko fusio-prozesua eragin du erakunde horietako bazkide sustatzaileek bultzatutako BGAEetan.

2.2 Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen balantze-zifraren bilakaera**9. koadroa.**

4H 2014	4H 2015	±% Δ	4H 2016	±% Δ	4H 2017	±% Δ
23.684.329.253,55	24.177.371.662,22	% 2,08	24.976.018.731,59	% 3,30	25.708.104.292,89	% 2,93

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2017ko ekitaldian, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen balantzea 732 milioi euro hazi zen.

Kontuan izanik ekarpenekin ingresatutakoaren eta BGAEek beren aurreikuspen-planen bidez prestazio eta erreskateen ondorioz ordaindutakoaren arteko aldea -87 milioi eurokoa izan zela ekitaldi horretan, izandako igoera inbertsioen errendimenduari so ulertzen da.

2.3 Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen bazkide kopuruaren bilakaera.**10. koadroa.**

	4H 2014	4H 2015	±% Δ	4H 2016	±% Δ	4H 2017	±% Δ
GIZONEZKO BAZKIDEAK	662.482	653.497	-% 1,36	640.085	-% 2,05	633.829	-% 0,98
EMAKUMEZKO BAZKIDEAK	509.546	503.928	-% 1,10	496.037	-% 1,57	493.262	-% 0,56
GUZTIRA	1.172.028	1.157.425	-% 1,25	1.136.122	-% 1,84	1.127.091	-% 0,79

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Azken hiru ekitaldietan bazkide kopuruan izandako beherakada, hein batean behintzat, epealdi berean banakako erakundeak integratzeko erregistratutako prozesuen ondorio logiko modura azal daiteke, zeinak aldi berean planak integratzea ekarri baitu berekin. Bestetik, gogoan izatekoa da aurreikuspen-planak dituzten BGAEetan guztira zenbat bazkide dauden erakusten dutela 9. koadroko datuek, kontuan hartu gabe pertsona bat BGAE batean edota batean baino gehiagotan dagoen. Ildo horretan, BGAEen arteko bikoiztasunak ezabatzen badira, 2017ko abenduaren 31n 819.815 pertsona zeuden babestuta aurreikuspen-planak dituzten BGAEen bidez.

2.4 Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenen eta prestazioen bilakaera.

11. koadroa

	4H 2014	4H 2015	±% Δ	4H 2016	±% Δ	4H 2017	±% Δ
EKARPENAK	671.357.467,83	656.386.143,14	-% 2,23	671.528.311,42	% 2,31	697.194.974,09	% 3,82
PRESTAZIOAK	626.618.632,32	624.859.612,63	-% 0,28	644.081.021,19	% 3,08	622.105.961,23	-% 3,41
ALDEA	44.738.835,51	31.526.530,51	-% 29,53	27.447.290,23	-% 12,94	75.089.012,86	% 173,58

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Taula horretan ez dira ageri erreskateak, ez eta enpleguko zenbait BGAEren kuotak eta gizarte-prestazioak ere, lehen esandako arrazoi berberarengatik: erreskateak, ez direlako prestazioak; eta besteak, ezin har daitezkeelako bigarren edo hirugarren zutabekoen multzokotzat. Alegia, gizarte-aurreikuspeneko planen ekarpen eta prestazioak jaso dira taulan.

2017. urtean, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenen bidezko diru-sarrerak % 3,82 handitu ziren aurreko ekitaldikoekin alderatuz. Azken bi ekitaldietako joera horrek hautsi egin zuen ekarpenek 2013-2015eko aldian izandako portaera negatiboa.

Dena den, aldagai horren portaera ez da homogoneoa aurreikuspen-planak dituzten BGAEak modalitateka aztertuz gero. Horixe erakusten du hurrengo koadroak.

12. koadroa

	4H 14	4H 15	±% Δ	4H 16	±% Δ	4H 17	±% Δ
Ekarpenak guztira	671.357.467,83	656.386.143,14	-% 2,23	671.808.760,15	% 2,35	697.194.974,09	% 3,78
Enplegukoak	273.098.452,32	277.272.123,97	% 1,53	275.743.185,49	-% 0,55	289.303.478,57	% 4,92
Banakakoa	390.438.448,89	372.701.636,37	-% 4,54	395.130.907,98	6,02%	407.549.034,93	% 3,14
Elkartuak	1.048.750,96	1.012.697,88	-% 3,44	934.666,68	-% 7,71	342.460,59	-% 63,36
Mistoak	6.771.815,66	5.399.684,92	-20,26%	0	-% 100,00	0	

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Erakunde elkartuak alde batera utzita, beren dimentsio apala dela medio, eta mistoak, dagoeneko desagertu direlako, azterketak enpleguko erakundeak eta banakakoak ditu ardatz.

Horri dagokionez, esan beharrekoa da enpleguko BGAEei egindako ekarpenen zenbatekoa eta banakakoei egindakoena antzekoak izan direla 2014. urtetik hona. Hori horrela izanda ere, gogoan hartu behar da 2014ko ekitaldian banakako BGAEei egindako ekarpena ia % 31 gutxitu zela aurreko urtearekin alderatuta, bi arrazoi hauek eraginda nagusiki: batetik, zergetan kengarriak ziren ekarpenen zenbatekoen mugak txikitu izana. Bestalde, argi ikusi da ekarpenak gutxitu egin direla 2012tik, krisi ekonomikoaren ondorioz, herritarrek aurrezteko ahalmen txikiagoa dutelako.

Bestetik, enpleguko BGAEei dagokionez, komeni da gogoratzea zerk eragin zuen nagusiki 2011ren aldean 2012an ekarpenek behera egin izana: sektore publikoko BGAEetako bazkide babesleek ekarpenik egin ez izanak.

2.5 BGAEen erreskateen zenbatekoaren bilakaera.

13. koadroa

	4H 14	4H 15	±% Δ	4H 16	±% Δ	4H 17	±% Δ
Erreskateak	221.536.300,32	203.135.781,04	−% 8,31	181.366.999,64	−% 10,72	162.161.657,73	−% 10,59

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

la erreskate guztiak (% 98,3) banakako aurreikuspen-planetan egin dira.

Prestazioren bat sortu aurretik metatutako eskubideak osorik edo zati batean itzultzeagatik sistematik ateratako guztizko zenbatekoa 162 milioi euro izan zen 2017an. BGAE indibidualen kasuan, urteko ordainketa guztien zati oso handi bat da. Hain zuzen, erreskatetan ordaindutakoa 2017an (159 milioi) prestaziotan ordaindutako zenbatekotik oso gertu dago (214 milioi). Banakako BGAEek erreskate bidez 2017an aurretiaz itzuli zuten dirua beren ondarearen % 1,4 inguru zen, ekitaldian egindako ekarpenen % 40, eta aurreikuspen-planek estalitako kontingentziak gertatzeagatik prestaziotan ordaindutakoaren % 76.

Erreskateen kopurua (partzialak eta erabatekoak) 24.916 izan zen 2017an, eta erreskateen zenbatekoa, berriz, batez beste, 6.508 eurokoa.

Horri dagokionez, esan dezakegu BGAEak estaltzen duen kontingentziaren batean erori baino lehen eskubide ekonomikoak erabiltzen dituzten pertsonen kopurua adierazle ona dela sistemaren aurreikuspen-helburua zein neurritan betetzen ez den ikusteko eta beste helburu batzuekin –adibidez, finantzei eta zergei lotutako helburuekin– erabiltzen dela ikusteko. Dena den, datuetatik ondoriozta daitekeenez, erreskateen zenbatekoa txikituz doa,

nabarmen, 2014tik aurrera, eta 2017an erreskatatutako zenbatekoa, adibidez, 2014an erreskatatutakoa baino % 27 txikiagoa da, gutxi gorabehera.

14. koadroa

	4H 14	4H 15	±% Δ	4H 16	±% Δ	4H 17	±% Δ
EKARPENAK (1)	671.357.467,83	656.386.143,14	-% 2,23	671.808.760,15	% 2,35	697.194.974,09	% 3,78
PRESTAZIOAK (2)	626.618.632,32	624.859.612,63	-% 0,28	644.081.021,19	% 3,08	622.105.961,23	-% 3,41
ERRESKATEAK (3)	221.536.300,32	203.135.781,04	-% 8,31	181.366.999,64	-% 10,72	162.161.657,73	-% 10,59
ALDEA (1)-(2)-(3)	-176.797.464,81	-171.609.250,53	-% 2,93	-153.639.260,68	-% 10,47	-87.072.644,87	-% 43,33

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Azkenik, ekarpenak, prestazioak eta erreskateak batera aztertuz gero, aipatu behar da ekarpenen bidez bildutako diruaren eta ordaindutako prestazioen eta aurreikuspen-planetan egindako erreskateen baturaren arteko aldeak saldo negatiboa duela 2014-2017 aldian. Baina 2017. urtean alde hori nabarmen murriztu da, bai egindako ekarpenak handitu direlako bai ordaindutako prestazioen bolumenaren eta egindako erreskateen zenbatekoaren batura txikitu egin delako.

2.6 Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen tamaina, bazkide kopuruaren arabera.

2017an, aurreikuspen-planak dituzten BGAEek, batez beste, 14.089 bazkide zituzten; banakakoek, 20.156; enpleguoek, 10.231, eta elkartuek, 764. Horrek esan nahi du banakako BGAEen batez besteko bazkide kopurua enpleguoen batez bestekoaren ia bikoitza dela.

Baina nahiko handiak diren neurri horiek «minifundismo» handia ezkututzen dute BGAEen kolektiboan, batez ere enpleguo BGAEen artean. Enpleguo BGAE gehien-gehienek, % 69k, 1.000 bazkide baino gutxiago dituzte, eta 6 erakundek baizik ez du 5.000 bazkide baino gehiago. (ikusi 15. koadroa). Indibidualen artean, tamainaren alde hori ez da hain handia; izan ere, BGAE indibidualen % 39k bakarrik dituzte 1.000 bazkide baino gutxiago, eta % 18ra iristen dira 25.000 baino gehiago dituztenak.

15. koadroa

Bazkide kopurua	Enpleguo BGAEak		Enpleguoak guztira	Banakako BGAEak	BGAE elkartuak	Guztira
	Sektorekoak	Enpresa				
< 250		9	9	6	1	16
250-1.000		22	22	7		29
1.001-5.000		8	8	8	1	17
5.001-25.000		2	2	6		8
> 25.000	4		4	6		10
Guztira	4	41	45	33	2	80

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2.7 Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen tamaina, ondarearen arabera.**16. koadroa**

Ondarea (milioitan)	Enpleguak		Enpleguak guztira	Banakakoak	Elkartuak	Guztira
	Sektorekoak	Enpresa				
<10		18	18	9	1	28
10-150		17	17	15	1	33
150-300		3	3	2		5
> 300	4	3	7	7		14
Guztira	4	41	45	33	2	80

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Tamaina bazkide kopuruaren arabera aztertu dugunean bezala, BGAEen ondarea aztertzen dugunean ere aipatutako minifundismoa aurkitzen dugu: tamaina txikiko erakunde askok, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ia % 83k, batezbestekoaren azpiko ondarea dute (321 milioi), eta tamaina handiko gutxi daude. Eta berdin gertatzen da enpleguko BGAEetan nahiz banakakoetan. BGAEen % 12,5ek (25.000 bazkide baino gehiago dituztenek) ondarearen % 80 dute.

3. - AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN SEKTOREAREN DIMENTSIO EKONOMIKOA

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEek ondare handia kudeatzen dute. Ikuspegi makroekonomikoari helduz, Euskal Autonomia Erkidegoko BPGaren % 34,82ren baliokidea 2017an. Ratio horrek aditzera ematen du BGAEek Euskal Autonomia Erkidegoan duten ezarpena eta garrantzia nabarmen handiagoak direla (ia laukoitza) pentsio-fondoek Espainian dituztenak baino, azken horien ondarea 2017an BPGaren % 9,6 zela aintzat hartuta. BGAEek kudeatutako aktibo kopuru horren handiak zeregin zinez garrantzitsua ematen die finantzaren ikuspegitik.

BGAEen garrantziak behera egiten du gizarte-babesaren sisteman duten dimentsio erlatiboa aintzat hartzen badugu, finantza-dimentsioa aintzat hartu behar. Ekarpunen ondoriozko diru-sarrera arruntek eta gizarte-prestazioko gastuek BPGaren % 1 islatzen dute, hurrenez hurren. Kontuan hartu behar da beste herrialde batzuetan urteko ekarpen gordinak BPGaren % 8,2koak direla, Suitzaren kasuan; % 7,8koak Australian, eta % 4tik gorakoak Herbehereetan, Islandian eta Ameriketako Estatu Batuetan.

EAEko 2017. urteko datuak kontuan hartuz, ekarpunen ondoriozko diru-sarrera arruntak eta gizarte-prestazioetan egindako gastua, hurrenez hurren, osatu asmo den Gizarte Segurantzaren sistema publikoak urte horretan EAEn gizarte kotizazioen ondorioz bildutakoaren % 14 inguru eta kotizaziopeko pentsioetan gastatuaren % 7 izan ziren.

17. koadroa

	Euroak, milakotan	BPGaren %	Gizarte Seg. %
Ekarpenak planak dituzten BGAEetara	697.195	1	% 13,6
Planak dituzten BGAEen prestazioak	622.106	1	% 7,18
Planak dituzten BGAEen ondarea	25.708.104	34,82	

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

BGAEek gizarte-babesaren diru-sarreretan eta gastuetan duten paperean dagoen horren alde handiaren interpretazioak hainbat azalpen ditu. Horien artean nabarmen daitezke sistema pribatua sistema publikoa baino gazteagoa dela edo hura bezain heldua ez dela, lehenengoaren orokortze falta eta bigarrenaren unibertsaltasun ia erabatekoa, edo ekarpen-maila nahiko baxuak direla sistema publikoko kotizazioekin alderatuz.

4. – BGAE-EN KUDEAKETA EKONOMIKOA**4.1. - Banakako modalitateko aurreikuspen-planen errentagarritasuna.**

Banakako modalitateko aurreikuspen-plan guztien artean eskuratutako batez besteko errentagarritasun haztatua (aurreikuspen-planen ondarearen arabera) % 2,13 izan zen 2017an. 18. koadroan, eskuratutako errentagarritasunak agertzen dira, orientazio inbertitzailearen arabera.

18. koadroa

Batez besteko errentagarritasun haztatua, banakako planetako orientazio inbertitzailearen arabera	
Orientazio inbertitzailea	%
Errenta aldakorra	9,31
Burtsa-indize bat edo errenta finkoko bat errepikatu, erreproduzitu edo erreferentziatzen hartzen du	7,89
Errenta aldakor mistoa	5,13
Bestelakoak	2,77
Errendimendu finkoko bermatuak	2,43
Errenta finko mistoa	1,65
Errendimendu aldakorreko bermatuak	0,71
Errenta finkoa, epe luzea	0,02
Errenta finkoa, epe laburra	-0,17
Batez besteko errentagarritasun haztatua guztira	2,13

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Gizarte-aurreikuspeneko plan bermatuak kontuan hartu gabe, halakoetan inbertsioaren epea gehenez ere 10 urtekoa izan baitaiteke (hala dio 203/2015 Dekretuak, urriaren 27koak, BGAEen 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duenak), gainerakoan, 2017an, orientazio inbertitzaile arriskutsuagoa zuten banakako planek izan zituzten emaitza onenak: errenta aldakorren mendekoen zeuden planek, alegia. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da plan batean epe luzera eskuratzen den errentagarritasunak garrantzi erabakigarria duela metatutako azken kapitalaren zenbatekoan.

Horregatik, orientazio inbertitzailearen arabera plan mota hautatzerakoan asmatzea funtsezkoa da pentsio osagarri egoki bat lortu ahal izateko.

Haatik, hautaketa hori oso zaila izaten da pertsona gehienentzat. Horri dagokionez, bizi-zikloko inbertsio-estrategiak, BGAEek ongi diseinatuak, oso positiboak izan daitezke pentsio osagarri egoki bat lortzera begira.

19. koadroa

Errentagarritasuna	Banakako planen kopurua
Negatiboa	44
% 0-5	177
% 5-10	36
> % 10	11

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

19. taulan ageri diren datuak urte osoan indarrean egon diren banakako aurreikuspen-planen buruzkoak baino ez dira; horiek zer errentagarritasun lortu duten kalkulatu da. Bestetik, 20. koadroan, 2017ko abenduaren 31n zeuden banakako aurreikuspen-planen kopurua ageri da, BGAEen arabera sailkatuta. BGAE bakoitzak batez beste banakako 10 plan inguru ditu, baina planen % 80 inguru 10 BGAEtan biltzen dira.

20. koadroa

Erakunde-kodea	BGAEaren izena	Plan-kop.
162	GEROCAIXA, BANAKAKO BGAE-A	55
201	BASKEPENSIONES, BANAKAKO BGAE-A	43
106	EUSKADIKO PENTSIOAK, BANAKAKO BGAE-A	34
98	NORPENSION, BANAKAKO BGAE-A	31
229	SANTANDER PREVISIÓN 1, BANAKAKO BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA	23
151	SVRNEPENSION, BANAKAKO BGAE-A	17
227	BANSABADELL PREVISION, BANAKAKO BGAE-A	16
211	RURAL PENSION XXI, BANAKAKO BGAE-A	13
114	EUROPREVISIÓN, BANAKAKO MODALITATEKO BGAE-A	12
107	BANKINTER PREVISION, BANAKAKO BGAE-A	9
192	CASER PREVISIÓN INDIVIDUAL, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA	7
117	WINTERTHUR, BANAKAKO MODALITATEKO BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO	6

	ERAKUNDEA	
190	FINECOPENSION, BANAKAKO BGAE-A	6
92	CREDIT AGRICOLE GEROKOA, BANAKAKO BGAE-A	5
100	BILBAO EPSV INDIVIDUAL, BANAKAKO BGAE-A	4
102	GENERALI PREVISION, BANAKAKO BGAE-A	4
140	MAPFRE VIDA UNO, BANAKAKO BGAE-A	4
248	ALTEGUI PREVISION, BANAKAKO BGAE-A	4
191	CATALANA OCCIDENTE PREVISIÓN, BANAKAKO BGAE-A	3
216	SANTALUCIA JUBILACIÓN, BANAKAKO BGAE-A	3
228	GENERALI PREVISION 2, BANAKAKO BGAE-A	3
268	RENTA 4 PREVISION INDIVIDUAL, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA	3
273	MEDIOLANUM PREVISION, BANAKAKO BGAE-A	3
136	DB-PREVISIÓN, BANAKAKO BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA	2
	PREVISIÓN SANITARIA NACIONAL AURRIKUSPENA, BANAKAKO BORONDATEZKO GIZARTE-	
231	AURREIKUS. ERAKUNDEA	2
	N.B. EQUILIBRIO DE PREVISIÓN SOCIAL, BANAKAKO BORONDATEZKO GIZARTE-	
243	AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA	2
276	BESTINVER INDIVIDUAL EPSV	2
277	NOVAGALICIA PREVISION, BANAKAKO BGAE-A	2
278	MARCH PREVISION, BANAKAKO BGAE-A	2
198	ZURICH PENSIONES, banakako borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundea	1
214	FIATC PREVISIÓN, BANAKAKO BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA	1
275	AMISTRA EPSV, BANAKAKO BGAE-A	1
240	BANIF EASO, EPSV	0
Guztira		323

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Enpleguko BGAEei dagokienez, lau erakunde sektorialak (kudeaketa propioa dute) enpleguko BGAE guztien ondarearen % 75 dira, eta % 5,80ko errentagarritasuna izan zuten, batez beste, 2017an. Dena den, kontuan izan behar da legediak enplegu-erakundeei aukera ematen diela, baldintza jakin batzuk betez gero, errenta finko negoziagarriko zorroa kostu amortizatuaren irizpidea erabiliz kontabilizatzeko, eta, horrenbestez, errentagarritasun horiek ezin alderatu daitezke zuzenean banakako erakundeenekin, zorro hori merkatu-balioaren arabera kontabilizatu behar dutelako.

4.2. - Orientazio inbertitzailea, bazkideen adinaren arabera

Irizpide orokor gisa, inbertsio motak desberdina izan behar du bazkideen adinaren arabera: zenbat eta gazteagoa bazkidea, orduan eta arriskutsuagoa inbertsioa, eta bazkidea zenbat eta helduagoa, inbertsioa orduan eta seguruagoa. Erretiratzeko adina hurbildu ahala, inbertsioek seguruagoak izan behar dute, nahiz eta horren ordaina errentagarritasun handiagoko aukerak galtzea izan, zeren eta arriskuak kapital metatu guztiari eragiten baitio; gaztetan, aldiz, metatzeko urte asko edukita eta arriskatzeko kapitala txikiagoa izanda, errentagarritasunik handiena bilatzeak izan behar du irizpide nagusia inbertitzeko garaian.

21. koadroa

Adina	Kontserbadorea		Arrisku ertaina		Arriskutsua		Bestelakoak	
	Bermatuak	Errenta finkoa, epe laburra	Errenta finkoa, epe luzea	Errenta finkoa, mistoa	Errenta aldakorra, mistoa	Errenta aldakorra	Bestelakoak	Guztira
< 36 urte								
Kopurua	4.761	13.480	6.956	100.548	6.807	3.102	1.225	136.879
%	% 3,48	% 9,85	% 5,08	% 73,46	% 4,97	% 2,27	% 0,89	% 100,00
36-45 urte								
Kopurua	25.180	42.445	19.877	215.209	20.337	9.944	6.827	339.819
%	% 7,41	% 12,49	% 5,85	% 63,33	% 5,98	% 2,93	% 2,01	% 100,00
46-55 urte								
Kopurua	55.893	51.677	24.504	222.016	26.515	11.716	11.653	403.974
%	% 13,84	% 12,79	% 6,07	% 54,96	% 6,56	% 2,90	% 2,88	% 100,00
56-65 urte								
Kopurua	50.039	48.827	23.055	174.414	16.183	8.569	11.277	332.364
%	% 15,06	% 14,69	% 6,94	% 52,48	% 4,87	% 2,58	% 3,39	% 100,00
> 65 urte								
Kopurua	12.971	27.533	12.918	68.143	7.041	5.083	5.581	139.270
%	% 9,31	% 19,77	% 9,28	% 48,93	% 5,06	% 3,65	% 4,01	% 100,00
Guztira								
Kopurua	148.844	183.962	87.310	780.330	76.883	38.414	36.563	1.352.306
%	% 11,01	% 13,60	% 6,46	% 57,70	% 5,69	% 2,84	% 2,70	% 100,00

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Irizpide hori, oro har, bete egiten da BGAEetako bazkideen kasuan. Horixe ikusten da, hain zuzen, 21. koadroari erreparatuz gero. Kontserbadoretzat hartu dugun inbertsioa (batik bat, epe laburreko errenta finkoan eta bermatuetan egindakoak) hazi egiten da, oro har, bazkidearen adinak gora egin ahala. 36 urte baino gutxiago dituztenek epe laburreko errenta finkoan dute inbertitua fondoan % 10 (2016an % 13); 65 urte baino gehiago dituztenen artean, berriz, ehuneko hori % 20ra igotzen da (2016an % 22). Beste horrenbeste gertatzen da 65 urtera arteko plan bermatuekin.

Hala ere, ezin da baieztatu gazteen inbertsioek profil egokia dutenik errentagarritasun handiago bat lortzeko asmoz beren gain hartzen duten arriskuari dagokionez, ez baita logikoa 36 urte baino gutxiago dituztenek beren ondarearen % 13 inbertsio kontserbadoreetan inbertitzea (2016an % 18), eta ehuneko hori % 92raino iristea (2016an % 93), errenta aldakorra % 30eraino iristen ez den tokian inbertitutakoa kontuan hartzen badugu. Horri dagokionez, 56-65 urtekoen portaera inbertitzaitetik gertu dago. Izan ere, azken horiek zorro kontserbadoreetan ehuneko handiagoa inbertitzen duten arren (% 30), ehunekoa ia berbera da (% 89) errenta aldakorra % 30era iristen ez den aktiboetan inbertitutakoa eransten badiogu.

Biztanleria gazteenaren fondo-esleipen hori ez da eraginkorra, ez delako ia batere bereizten gazteen eta helduen orientazio inbertitzailea. Zehazki, 36 urtetik beherako bazkideen % 2k soilik hautatu ditu arrisku handieneko aurreikuspen-planak, non errenta aldakorrak aktiboen % 75etik gorako pisua duen. Jende nagusiaren kasuan logikoa dena logikarik gabea da gazteen kasuan; izan ere, geroan behar besteko pentsioa izateko, nahikoa kapital metatu behar da aurrena, eta gazteek, azken kapital hori lortzeko ezinbestekoa duten errentagarritasun bati uko egiten diote horrela, portaera kontserbadore horrekin inbertitzean.

Egoera horri konponbide bat eman nahi dio bizi-zikloaren inbertsio-estrategien erregulazioak, zeina BGAEei aplikatu beharreko araudian baitago jasoa. Horri dagokionez, ekarpen finkatuko aurreikuspen-planak artikulatzen dituzten BGAEek, banakako modalitatekoek, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, bizi-zikloaren inbertsio-estrategia bat eskaini behar diete erakundeko bazkide osoei, gutxienez hiru aurreikuspen-planekoa eta gehienez bostekoa, arrisku- eta etekin-konbinazio bat baino gehiago dituztenak, kontuan izanda bazkideen adina, inbertsio-estrategia eta bazkide bakoitzaren egoera.

Azkenik, nabarmentzekoa da bazkideen % 58k, beren adina gorabehera, errenta finko mistoko planen alde egiten dutela, zeinetan errenta aldakorreko aktiboetan inbertitutakoa % 30era iristen ez den. Errenta finko mistoko planak aukeratzen dituzten bazkideen ehunekoak % 74 da 36 urtetik beherakoetan.

4.3. - Administrazio-gastuak

BGAEek eskuratutako errentagarritasuna, inbertsio-estrategiaren bidez eskuratutako errentagarritasunaren araberakoa izateaz gain, administrazio-gastuen kontzeptuan aplikatzen den portzentajearen mendekoa da. Inbertsio-estrategia bera izan arren, gastu handiago batzuek oso eragin kaltegarria dute metatutako kapitalean epe luzera.

Horrenbestez, gastu neurritzkoa izatea da, inbertsio-estrategia egoki batekin batera, hala finantzaren ikuspegitik nola bizi-zikloaren ikuspegitik (nahiko ekarpen egiten hasita adin goiztiarretan), beste faktore erabakigarria kapital egokiak lortzeko eta nahikoa den pentsio osagarri bat atera dadin hortik.

2017an, enplegu modalitatearen eta banakako modalitatearen artean gastu-aldea handia izan da. Orain emango dugun datua, administrazio-gastuen batez besteko ehunekoarena, modalitate bakoitzeko administrazio-gastu guztien ehunekoaren batezbesteko aritmetikoaren emaitza da. Aurrekoarekin bat etorritz, BGAE indibidualetako administrazio-gastuak % 1,22koak izan ziren ondarearen gainean.

Bestalde, ekarpen finkatuko enplegu-plan guztien administrazio-gastuen batezbestekoa % 0,93koa izan zen. Horrek esan nahi du banakako BGAEetan administrazio-gastu moduan ezarritako ehunekoak % 31 handiagoa dela enpleguko BGAEek ekarpen finkatuko planetan gastu moduan ezarritakoa baino.

Alderaketa enpleguko lau BGAE sektorialen administrazio-gastuen batezbestekoarekin eginez gero (enpleguko BGAEen ondare guztiaren % 75 dira sektorialak eta modalitate horretako bazkideen % 91 biltzen dituzte), kontuan izanda horiek % 0,43ko administrazio-gastuak ezartzen dituztela, ondorioa honako hau da: banakako BGAEek administrazio-gastu moduan ezarritako ehunekoak ia hiru aldiz handiagoak da enpleguko lau BGAE sektorialekin batez beste ezarritakoa baino.

Ilido horretatik, kudeaketa kolektiboa duten enpleguko BGAEek abantaila argiak dituzte banakakoekin alderatuz gero. Eta abantaila hori oso garrantzitsua izan daiteke metatutako ondarearen edo jasotzeko eskubidea ematen duen pentsioaren balioaren azken kalkulua egiterakoan.